

EUSKOTRENEK DONOSTIAN AUTOBUSEN GERALEKUAK ALDATUKO DITU OLENTZEROREN ETORRERAN

Horrez gain Eibarren zerbitzua aldatuko da Eguberrietako jaietan zehar

Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Publikoa den Euskotrenek, datorren abenduaren 24an, Olentzeroren etorreran Donostian autobusen zerbitzua aldatuko du. Horrez gain, Eibarren autobusen zerbitzua aldatuko da Eguberrietako jaietan zehar.

Datorren astelehenean, abenduaren 24an, ibilbidean eta UK09, UK10 eta UK11 Zumaia-Donostia Lurraldebus lineetako autobusen geralekuetan aldaketak sartuko dira. Donostiako irteeretan, UK09 eta UK10 lineetako autobusek 17:45ak 19:45ak bitartean Askatasuna Etorbidean ez dute geldialdia egingo. Beste alde batetik, UK11 linean, Donostiako irteeratik, 18:30ean irteten den autobusak geldialdia Federico García Lorca geralekuan egingo du gero Zubieta 14 kaleko geralekuraino jarraitzeko, eta gero ohiko ibilbidera itzulita.

Aldaketak Eibarren

Eguberrietako jaiak direla eta, abenduaren 24ko eta 31ko goizeko 10:00etatik aurrera, abenduaren 25eko eta urtarrilaren 1eko 22:00ak arte, Eibarko erdigunea oinezkoentzako bihurtuko da. Hori dela eta, DB02 Ermua-Donostia (AP-8) eta DB04 Mallabia-Ondarroa Lurraldebus lineetako autobusek asteburuetan bezala ibiliko dira.

Eibarko autobusen hiri barruko zerbitzuari dagokionez, Udalbus, abenduaren 24an eta 31n goizeko 10:00etatik aurrera ez da eskainiko. Hain zuzen ere, honako zerbitzuak kendu egingo dira: 1) Debesatik Amañara: 10:57, 11:57 eta 12:57; 2) Saratsuegitik Amañara: 11:27, 12:27, 14:27 eta 18:27; 3) Tekinikerretik Amañara: 13:55 eta 17:25; 4) Amañatik Debegesara: 9:55, 11:25, 12:25 eta 13:25; 5) Amañatik Saratsuegira: 10:55, 11:55, 12:55 eta 17:55; 6) Amañatik Azitainera: 14:25 eta 18:55; 7) Amañatik Teknikerrera: 16:55.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia, konpainiaren www.euskotren.eus webgunea eta twitterreko @euskotrenEJGV gunea ere daukate.

Igorpen data: ostirala, 2019ko abenduaren 20a

Euskadi, auzolana, bien común

